



**Arartekoaren 2020R-1949-19 EBAZPENA, 2020ko martxoaren 12koa. Horren bidez, Arrasateko Udalari gomendatzen zaio dagozkion neurriak hartu ditzala azoka egunetan gauez egiten diren zamalanek eragindako eragozpenak saiheste aldera.**

### Aurrekariak

1. Arrasateko zenbait bizilagunek salatu dute 2018az geroztik merkatu-egunetan, astean bitan, gauez aparkatzen duten kamioiek eta furgonetek zarata handia eragiten dutela.

Zehazki, azaldu dute jasanezinak direla beren etxeetan, udal azokaren inguruan, sentitzen dituzten kolpe eta dardarengatiko zaratak azokara gauez joaten diren saltzaile ibiltariak egindako zamalanetan. Aipatu dutenez, saltzaile horiek beren salgaiak furgoneta eta kamioi txikietan garraiatzen dituzte eta inguru horretan aparkatzen dute. 05:00-05:30ak aldera, produktuak bide publikoan deskargatzen dituzte, beren etxebizitzetan azpian, eta azokara eramaten dituzte saltzen jartzeko. Jarduera horrek eta aurrera eta atzera ibiltze horrek zarata handia sortzen dute inguruko etxebizitzetan, eta bizilagunek ezin dute behar bezala atsedean hartu.

Erreklamazioan azaltzen dutenez, hainbat erreklamazio aurkeztu dituzte Arrasateko Udalaren aurrean, eta udaletxeko arduradunekin bildu dira. Bizitegi-eremuetarako zarata-araudiak ezarritako soinu-maila errespetatu dadin eskatu dute. Lan horiek eguneko ordutegira atzeratzeko eskatu dute ere; hala, gauez sortzen den gehiegizko zaratak eragindako eragozpenak murriztu ahalko ziren.

Hala ere, ez dutela horri buruzko konponbiderik lortu esan dute, ezta aurkeztutako erreklamazio ugarien gaineko berariazko erantzunik ere.

2. Horren harira, nabarmendu beharra dago kontu hori aurreko beste bi espedientetan (erreferentzia-zenbakiak: 2171/2018/QC eta 216/2018/QC) aztertu zen. Bi kasuetan, tokian izandako eragin akustikoa zuzentzeko adostutako udal-neurrien arabera, Arartekoak espediente horietan egindako esku-hartzea eten zuen kexak hizpide duen arazoa behar bezala bideratu dela uste zuelako.

Nolanahi ere, azpimarratu behar da erakunde honek izapidetutako lehenengo espedientean, erreferentzia 2171/2018/QC, Arrasateko Udalak Arartekoari jakinarazi ziola 2018ko urriaren 25ean, tokiko gobernu-batzarrak Arrasateko kutsadura akustikoko ekintza-plana gauzatzea onartu zuen, eta hura kontrol-enpresa bati esleitu zitzaion. Azokako eremu horretan dagoen eragin akustikoa aztertuko zen proiektu horretan eta, horren ostean, arazo hori konpontzeko gauzatu beharreko ekintzak zehaztuko ziren.





Ohartarazi zen ere, adostutako ekintza-plana garatu bitartean sor daitezken eragozpenak saihesteko asmoz, eremu horretan zamalanak egiteaz arduratzen ziren pertsoneri eskatu zitzairen gune horretan dagoen pasabide bat ez erabiltzeko salgaia merkatura eramateko, batez ere gaueko ordutegian, hartara, eragindako bizilagunei sor dakizkiekeen zarata-eragozpenak arintzeko edo, gutxienez, murrizteko. Saltzaileei ohartarazi zitzairen, halaber, lan horiek egiten ari ziren bitartean arreta handiz jardun behar zutela, gehiegizko eta alferrikako zaratak ez sortzeko.

Jasotako datuen arabera, Arartekoak ondorioztatu zuen neurri horiek hartzeak era horretako jarduerak eragindako eragozpenak konpontzen lagunduko zuela. Nolanahi ere, Arartekoak proposatu zuen, harik eta sortutako zarata-maila egiaztatzen den arte, jarduera hasteko ordutegia atzeratu egin beharko zela, egunez egin beharko zena. Hori guztia, bien bitartean, eragindako bizilagunei sortu ahal izan zaizkien kalteak zuzentzeko edo murrizteko.

Kexagileak, ordea, ez zeuden batere ados udalak emandako erantzunarekin; izan ere, adierazi zuten hartutako neurriak ez zirela nahikoak, aurkeztutako lehenengo udal-erreklamazioetatik udalak debekatu egin baitzuen pasabide hori erabiltzea. Hala ere, azaldu zuten, ordutik zamalanak kanpoan egiten zituzten, beren etxebizitzan azpian hain zuzen ere, eta horrek beren etxebizitzetako zarata-maila handitzen lagundu zuen, eta gaueko atsedena galarazten. Arrazoi hori dela-eta, eragindako bizilagunek azpimarratu zuten udalak beste neurri batzuk hartu behar zituela beren etxeetan sortutako gehiegizko soinu-maila saihesteko.

3. Kexagileek helarazitako gogoetak egiaztatzeko, Arartekoak beste espediente bat izapidetu zuen (erreferentzia-zenbakia: 216/2019/QC), eta udalera jo zuen berriz udalak ondoren egindako jarraipena nolakoa izan zen ikusteko.

Oraingoan, Arrasateko Udalak jakinarazi zuen aurreikusitako neurketak egitea atzeratu bazen ere, azkenean 2019ko ekainean egingo zirela, eta egindako probetan lortutako datuen arabera, salatutako gehiegizko soinu-maila behin betiko zuzentzeko eta zaraten araudian ezarritakoa betetzeko behar ziren erabakiak hartuko zirela.

Gainera, sortu zitezkeen zaratak arintze aldera, udalak zamalanak hasteko ordutegia 06:30ak arte atzeratzeko agindua eman zuen. Halaber, adostutako neurketak egin bitartean, eremu horretako kontrolak areagotuko ziren.

Aitzitik, kexagileak ez zeuden ados udalak emandako datuekin, eta ziurtatu zuten zamalanek 05:00ak aldera jarraitzen zutela. Adostutako kontrol lanak ere ez zirela egiten nabarmendu zuten, saltzaileek beraiek azoka gauez zabaltzeko giltzak zituztelako.

Amaitzeko, hamaika erreklamazio aurkeztu arren, udalaren erantzunik jaso gabe jarraitzen zutela adierazi zuten; hala, aurkeztutako erreklamazioak ez ziren ebatzi, eta sortutako gehiegizko soinu-maila ez zen murriztu, inolaz ere. Udalak bakarrik





adierazi zien egindako probetan lortutako emaitzengatik sortutako zarata-maila ez zela gehiegizkoa izan *“nahiz eta kasu batzuetan zarata-legerian ezarritako gehienekoak gainditu diren”*. Udalak ez zuen beharrezkotzat jotzen neurri gehiago hartzea, gutxienez, harik eta aurrez aurreikusitako ekintza-plana behin betiko gauzatzen den arte.

4. Zaratak eragindako bizilagunak behin eta berriz eskatu ondoren, Arartekoak espediente berri bat izapidetzea erabaki zuen, oraingoan ebazpen honen goiburuan ageri den erreferentzia-zenbakiarekin, eta kudeaketa berriak egin zituen Arrasateko Udalarekin, horri buruz hartutako azken erabakien berri izateko. Horrez gain, aurreikusitako ekintza-plaza gauzatzeari buruzko informazioa eskatu zuen, eta egindako kontrolen eta neurketen kopia lortutako zarata-mailak egiaztatze aldera.

2019ko abenduan jaso zen udalaren erantzunean aipatu da azokaren kanpoaldean egindako neurketetan emaitza *“kontrajarria”* lortu dela, kexagileek adierazi zuten moduan. Horregatik, ikusita zenbat erreklamazio aurkeztu diren, udalak erabaki du inguru horretan berariazko beste azterlan akustiko bat egitea, nahiz eta, gaur egun, esleipen fasean egon. Dena den, adierazi zuten ondoren hartuko diren erabakiei buruzko informazioa emango zaiola Arartekoari.

5. Denbora luze igaro bada ere, ez da horri buruzko berritasunik lortu. Kexagileek, hala ere, salatzen jarraitzen dute gaez jasaten dituzten zarata-eragozpen larriak. Beren etxeetan pairatzen duten kutsadura akustikoak gaez behar bezala atsedean hartzea eragozten die.

Aurrekari horiek eta kexagileak alegatutako gainerako inguruabarrak ikusita, honako gogoeta hauek jakinarazten dizkizut:

### Gogoetak

1. Kexa honen xede nagusia hau da: Arrasateko Udalak azokaren inguruan egiten diren zamalanek sortzen dituzten zarata-eragozpenak direla-eta izapidetutako kexa-espedienteetan emandako erantzunak baloratzea, asteen bi egunetan gutxienez, gaueko ordutegian.

Udalak emandako dokumentazioan adierazten da merkatuaren kanpoaldean neurketak egin direla, udalerrian aurreikusitako zarata-maparekin eta udal-ekintza planarekin bat etorriz. Lortutako emaitzek adierazten dute zarata-maila araudi bidez ezarritako gehieneko indizeak baino handiagoa dela. Hala ere, ez dago jasota inolako udal-neurririk hartu denik sortutako gehiegizko zarata murrizteko, udalak uste baitu emaitza horiek kontraesankorrak direla. Dena den, behin baino gehiagotan berariaz eskatu badu ere, Arrasateko Udalak ez du ekintza-planari buruzko informazio gehigarri eman. Dirudienek, plan hori gauzatzen ari da, eta ez da egindako neurketen eta kontrolen kopiarik eman.





Gainera, kexagileek bi urte baino gehiagoan behin eta berriz salaketak aurkeztu dituzten arren, ez dirudi Arrasateko Udalak berariazko kontrolik egin zuenik eragindako etxebizitzetan jasaten duten zarata egiaztatzeko. Halaber, ez da ondorioztatzen inolako jarraipenik egin denik sortutako zarata arintzeko aurreikusitako neurriak betetzen diren egiaztatzeko, ez eta zamalanak egiten hasteko ordutegia eta jarduera hasteko ordutegia ere.

2. Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak eta urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak kutsadura akustikoa honela definitzen dute: ingurumenean zaratak eta dardarak egotea, sortzen dituen igorle akustikoa dena delakoa izanda eta horrek eragozpena, arriskua edo kaltea sortzea pertsoneri, jardueren garapenari edo edozein izaeratako ondasunei, edo ingurumenean eragin nabarmenak sortzea. Aldi berean, ingurumen-zaratatzat jotzen dute gizakien jarduerak sortutako eta sortu nahi ez den edo kaltegarria den edozein soinu.

Bi manu horiek aplikatu behar dira titulartasun publikoko edo pribatuko igorle akustikoetarako eta eraikinetarako (azkenengo kasu horretan, soilik hartzaile akustiko gisa); hala, horien helburua da kutsadura akustikoa murriztea, osasunean, ondasunetan eta ingurumenean kalterik egon ez dadin.

3. Kasu honetan, azokaren inguruetan egiten diren zamalanek soinu-paisaia sortzen dute, eta ohikoa eta ezaguna izan daiteke espazio publikoetan eta urbanizatutako eremuetan. Hala ere, lan horiek sortzen duten soinu-inpaktua inguruan bizi diren pertsonen bizi-kalitatean nahasmendua sor dezake, etengabeak direnean eta, bereziki, gaueko ordutegian sortzen direnean. Zarata horrek ere, legeria aplikagarriak onartzen dituen gehienekoak gainditzen dituen neurrian, konstituzioak zaratarik gabeko etxebizitza bat izateko ezartzen duen eskubidea urratu dezake.

Hortaz, lan horiek betetzeak bide publikotik ingurumen-zarata igortzea eragiten duenez, betiere eta edonola ere, jarduera gogaikarriak arautzen dituen zaratari buruzko araudiaren xedapenak bete beharko dira.

4. Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak eta urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak kanpoko ingurunean errespetatu beharreko mugak ezartzen dituzte, bai eta eremu urbanizatuetan eta etxebizitzetarako eta bizitegi-erabilerrako eraikinen barneko espazio bizigarrian bermatu beharreko kalitate akustikoaren helburuak ere (l. eranskina). Gainera, eguneko nahiz gaueko ordutegirako baimendutako zarata-mugak berariaz bereizten dituzte. Bestalde, udalerriko zaraten eta dardaren aurka ingurumena babesteko udal-ordenantzak (1984ko irailaren 28ko udaleko osoko bilkurak onartu zuen) etxebizitzetan barnealdean zein kanpoaldean errespetatu beharreko mailak ere ezartzen ditu. Bi kasuetan, bi eremuetan bete beharreko gehieneko mugak murriztaileagoak dira gaueko ordutegian, herritarrek atsedean hartzeko eskubidea behar bezala bermatzeko betebeharra aintzat hartuta.





5. Horrenbestez, administrazioak zaraten ondoriozko eragozpenak sor ditzakeen edozein jarduera antropikoren kontrola egin behar du, eta ondoren, zaintza lana egin. Horren funtzionamendua abiarazi aurretik, ingurumenari zein pertsonen osasunari eragin ahal dizkien kalteak ebaluatu behar ditu administrazioak eta, horrenbestez, beharrezkoak diren prebentzio-neurriak ezarri.

Hala ere, ingurumen-kontrola ez da jarduera hastean soilik egin behar; aitzitik, era egokian garatzeko, jarraipena egin behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio immisioen gehieneko balioei eta ingurumen-araudiak alde aurretik finkatutako ingurumenaren kalitaterako helburuei dagokienez. Aipatu beharra dago, udal azokako jarduera hori egiten den bitartean, zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharra eta bide publikoan zamalanak egiteko lan osagarriak udalaren eskumenekoak direla, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean jasotakoaren arabera.

6. Bestalde, aipatu behar da tokiko merkataritza sustatzeko udal-eskumena eta jarduera horren interes publiko ukaezina ez direla nagusitzen pertsonak etxebizitza egokia izateko duten eskubidearen gainetik, ez eta atsedenerako eskubidea modu egokian bermatzen duten kanpoko faktoreen bortxaezintasunaren gainetik ere. Horregatik, udalaren esku-hartzeak ez du kontrajarri behar garatzen den jardueraren interes publikoa edo soziala atsedenerako eskubidearekin; aitzitik, inguruarekin duen ingurumen-eragina aztertu behar du, eta jarduera horren garapenaren bateragarritasuna bermatuko duten neurriak hartu behar ditu.

7. Horrela ulertzen du, halaber, Merkataritza Jarduerari buruzko Legea bigarrenez aldatzen duen ekainaren 25eko 7/2008 Legeak; lege horrek ezartzen du, aldizkakotasun finkoko merkatu tradizional horiek egiteko baimena eman aurretik, udalek zehaztu beharko dituztela horiek gauzatzeko lekuak, salbuetsitako perimetroak, maiztasuna, ordutegia, lekuak edo espazioak. Gainera, 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalek behar diren kontrol eta zehapen eginkizunak bete beharko dituzte jarduera osoan behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko, hasten denetik ixten den arte.

8. Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak aurreikusten du kutsadura akustikoaren aurkako babesa tokiko erakunde berezko eskumena dela; horrez gain, aitortzen du herritarrek eskubidea dutela eskumen hori gauza dadin eskatzeko. Aldi berean, Tokiko Erakundeei buruzko Legeak (2016ko apirilaren 16koa) 44.c) artikuluan agintzen du herritarren beharra eta erantzukizuna dela tokiko araudia betetzeko eskatzea; hala, udaleko agintariei jakinarazi beharko diote espazio publikoan bizikidetzat sustatzeko arauak hausten direnean. Halaber, zerbitzu bat ematea zailtzen edo eragozten duten edo erabiltzaileentzat edo hirugarrentzat arriskutsuak diren anomalien berri eman beharko diete.

Horregatik guztiagatik, ukitutako herritarrek aurkeztutako zaratei buruzko erreklamazioak ikusirik, beharrezkoa da hori objektibotasunez egiaztatzea. Xede horrekin, udaleko zerbitzuek egiaztatu beharko dute lan horiek egiteak edo zerbitzu





horiek ustiatzeak zer-nolako soinu-maila sortzen duten, bai eta eragindako etxebizitzetan izandako immisioak ere. Horren ondoren, lortutako emaitzetan oinarrituta, arrazoizko neurriak eta neurri egokiak ezarri beharko ditu, gizabanakoaren eskubideak babesteko bere ongizaterako ondorio kaltegarrietatik.

Hala aurreikusten du ere udalerriko zaratak eta dardarak arautzen dituen tokiko ordenantza horrek.

9. Ingurumen diziplinako ahalmenak gauzatzea ez da pribilegio administratibo bat, baizik eta administrazioen betebeharrak xedaezina.

Administrazioek ahalmen administratiboak gauzatu behar dituzte zarataren ingurumen-babesa modu eraginkorrean bermatzeko, gehiegizko zarataren kausak prebenitzeko eta esku hartzeko kausa horiek eteteko edo jarduera moteltzeko. Aldi berean, eskubide hori berdina izan behar da pertsona guztientzat eta emaitzaren beharra ekartzen du berekin, zaratarik gabeko etxea behar bezala babesten dela bermatzen duena, araudian ezarritako gehieneko mugak gainditzen dituzten immisio akustiko kutsatzailerik gabe.

10. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua bermatzen du ingurumenarekiko eskubidea eta pertsonen bizitza pribatua izateko eta etxea babesteko duten eskubidea lotuta daudela; lotura hori dela-eta, zenbait epai eman ohi dira. Hala, epai horietan azpimarratu da beharrezkoa dela botere publikoek aktiboki jardutea edozein kutsadura motaren aurka, baita zarataren aurka ere.

Era berean, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak ingurumen-babesa banaka gauzatzeko eskubide bat sortu du, honako epai hauetan bezala: López Ostra versus Espainia, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1994ko abenduaren 19ko Epaiak eta Moreno Gómez versus Espainia; Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2006ko urriaren 16ko Epaiak. Horiek gai horren inguruko oinarritzko erreferentziak dira, baina ez bakarrak.

Bi kasu horietan, auzitegiak jo du bizitza pribatua eta familia-bizitza izateko eta etxebizitzaz gozatzeko eskubidea urratu ahal izan dela, ingurumen-kalte larria eta etengabea dagoela egiaztatzen den eta agintari publikoek beharrezkoak eta zentzudunak diren neurriak hartzen ez dituzten kasuetan, behar bezala bermatzeko ongizaterako eta osasunerako kaltegarriak diren ondorioak jasaten dituzten pertsonen babesa. Gainera, gogorarazi du ondorio kaltegarriak izateak ez duela esan nahi osasunerako arrisku larria dagoenik. Auzitegiak ezarri behar du zarataren eta beste immisio batzuen ondorioz eragindako kalteek larritasuneko gutxieneko atalasea gainditzen duten, etxebizitza eta bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea urratzeko moduan. Atalase horren egiaztatpena erlatiboa da. Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8. artikulua bermatzen du ingurumenarekiko eskubidea eta pertsonen bizitza pribatua izateko eta etxea babesteko duten eskubidea lotuta daudela; lotura hori dela-eta, zenbait epai eman ohi dira. Hala, epai horietan azpimarratu da beharrezkoa dela botere publikoek aktiboki jardutea edozein kutsadura motaren aurka, baita zarataren aurka ere.





Hortaz, beharrezkoa de botere publikoek arriskuak ebaluatzea eta eskubide hori babesteko neurri zentzudunak ezartzea.

11. Gainera, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren aginduaren azpian dagoen esku hartzeko betebeharrak hori, bizitza pribatua eta familia-bizitza behar bezala babesteko, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiaren urriaren 23ko 824/2014 Epaian ere jasota dago. Epai horretan, zuzenbidearen arabera da Sanxenxoko Udalak zamalanak gaueko ordutegian egitea debekatzea, etxebizitza batean sortutako legez kanpoko zarata-eragozpenak saihesteko. Lan horiek gaueko ordutegian egitea jasanezina izan daitekeen zarata bat izan daiteke, etxebizitza baten bizitza pribaturako eta familia-bizitzarako eskubidea kaltetzen duena, gutxienez, eskatutako neurri zuzentzaileak bete arte eta araudiak etxebizitzan aurreikusitako immisio-mugak errespetatzen direla bermatu arte.

12. Aurrekarietan azaldutako datuen arabera, ikusi ahal izan da bide publikoan neurketak egin direla, udalean lantzen ari diren zarata-maparekin eta ekintza-planarekin bat etorriz. Nolanahi ere, eragindako bizilagunek salaketak behin eta berriro aurkeztu arren, eragindako etxebizitzetan lortutako immisioak ez dira aztertu. Gainera, nahiz eta kanpoan lortutako zarata-mailak baimendutako maximoak baino handiagoak izan, ez da kontrolik egin gizabanakoaren eskubideak ongizaterako ondorio kaltegarrietatik babesteko adostutako neurriak betetzen diren egiaztatzeko. Zamalanak hasteko ordutegia egiaztatzeko jarraipenik ere ez da egin, eta ezta jarduerari buruzkorik ere.

Horregatik guztiagatik, Arartekoak uste du beharrezkoa dela Arrasateko Udalak baliabide eta prozedura egokiak baliatzea gune horretan bizi diren pertsonen eskubideak gauzatzen direla lortzeko; izan ere, zerbitzu horrek eragindako eragozpenen ondorioz, pertsona horiek ezin dute beren lasaitasunean eragozpenik izan.

13. Azkenik, udal horri gogorarazi behar zaio bidalitako jakinarazpen guztiak, gertakari jakin batzuk jorratu eta ingurumen edo hirigintza kontrolari lotutako instalazioen edo jardueren ez-betetzea salatzen dutenak, salaketatzat jo behar direla eta dagokion organoari helarazi, izapidetu daitezten.

Ingurumen-legezketasunaren defentsaren alorreko ekintza publikoa erabiltzean, administrazio-espeditentia izapidetzea ekarri behar du salaketak, hirigintza eta ingurumen legediaren terminoetan eta administrazio prozedurari buruzko legerian aurreikusitako arauari jarraikiz.

Gainera, udalak herritarrei eman beharko die zerbitzuaren baldintzei nahiz modalitatei buruz duen informazio guztia, baldin eta eskatzen badute.

Hori guztia ikusita, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin da:





## GOMENDIOA

Arartekoak Arrasateko Udalari gomendatu dio, udaleko azokaren zaratagatik aurkeztutako ingurumeneko erreklamazioei eta salaketei erantzunez, dagozkion kontrol eta ikuskapen ahalmenak betetzen jarraitu dezala, alde batetik, ahalik eta bizkorren ebaluatzeko zamalanek eragiten duten soinu-maila, eta bestetik, eragindako pertsonen etxebizitzetan sortutako soinu-immisioak egiaztatzeko.

Arrasateko Udalak ere, hala badagokio, neurri zentzudunak eta egokiak hartu beharko ditu, etxearen babesaren bermatzen dutenak, araudian ezarritako gehieneko mugak gainditzen dituzten immisio akustiko kutsatzailerik gabe. Nolanahi ere, neurri horien artean, berme hau jaso behar da: zamalanek zarata-araudian ezarritako mugak beteko dituztela, bai eta udalak adostutako ordutegia ere.

